




SL®- NA 72 AZANZOREAKO LEZEA

HASIERA:
 ▶ NA-2130. Km 12,5



Ibilbidearen hasiera Burgi eta Bidankoze arteko errepidean da, eta Azanzoreako lezeraino igotzen da, kareharrizko makurgune handi bat, euri-garaian ur-jauzi handia duena. Errepidetik abiatuz, bidexka Txestas bordatik igaro eta Lizanzorea eta Ariztoia errekek zeharkatzen ditu. Azkenik, sigi-sagan igotzen da aldapa gogor batetik, lezearen inguruetara hurbiltzeko. Han bideak kiribil bat egiten du, hormen oinarri osoan eta gainaldetik erortzen den ur-jauzi ikusgarriaren behaldean barrena ibiltzeko. Lezean eraketa geologiko interesgarriak ere aurkituko ditugu, hasierako puntura itzuli aurretik.